

Zatitutako herria osatzeko grafitiak

PERU IPARRAGIRRE  DANI BLANCO

Mendiz eta basoz inguratutako herri txikia da Fanzara (Castelló, Valentzia, Herrialde Katalanak). 273 biztanle ditu egun, gehienak adinekoak. 2004an PP agintean zuen Udalak herriaren lurretan gai arriskutsuen zabortege bat jartzeko plana onartu zuen, herriko ekonomia bultzatu eta lanpostuak sortzeko, omen. Ekologikoki bideraezina zen proiektua ordea, besteak beste, kokagunearen azpian zegoen akuiferoa kutsatzeko arriskua baitzegoen. Ondorioz, zabortege proiektuaren aurka zeuden herritarrek Vertedero Sustancias Peligrosas No (Gai arriskutsuen zabortege ez) plataforma eratu zuten. Egindako borrokak fruituak eman zituen eta 2007an Valentziako Erkidego Lurralde Kontseilariak zabortegea eraiki behar zuten lur-eremua birkalifikatzea eta bertan gai arriskutsuak

metatzea debekatu zuen, ingurumenarekiko eragina kaltegarria izango zela argudiatuta.

Ordurako, ordea, biztanleen arteko harremanak gaiztotuta zeuden. Zabortegearen aldeko eta aurkako, herritarrek zatituta eta etsaituta zeuden. Kasu batzuetan, familia bereko eta koadriletako kideek elkarrekin hitz egiteari utzi zioten eta behialako elkarbizitza deseginda zegoen. 2011ko udal hauteskundeetan zabortegearen aurkako plataforman parte hartutako herritarren hautagaitzak irabazi zituen bozak. Zabortegearen aurkako proiektua behin-betiko atzera botata, herritarren arteko harremanak osatzeko zerbait egin behar zela erabaki zuten.

Horretarako sortu zuten Arte Urbanoaren Museo Bukatugabea (MIAU, gaztelaniazko siglekin). Elkarbizitza artearen bitartez sustatzea da proiektuaren helburua. Herritarrek artistak euren

etxeetan hartzen dituzte urtero uztailean egiten den jaialdian, eta euren etxeetako hormetan hartzen du bizia arteak. Aldi berean, herritarren arteko bitartekariak dira artistak. Jendea elkarrekin egoteko, hitz egiteko, zerbait partekatzeko aukera eta aitzakia paregabea da. 2014an jarri zituzten martxan museoa eta jaialdia eta ordutik hona 150 interbentzio egin dituzte. Herri txiki bateko hormetako museoa grafitigileen mundu mailako erreferentzia bilakatu da. Gainera, dantza emanaldiak, kontzertuak, argazki-erakusketak, hitzaldiak eta proiektzioak ere egiten dituzte urteroko festibalean. Fanzarako biztanleek kudeatzen dute proiektua eta beraiek egiten dute lan, boluntarioki, aurrera atera dadin. Balio izan du herritarren arteko etsaitasunak baretzeko eta artearen bidez komunitatea sendotzeko. Urte osoan bisita daiteke etengabe eraldatzen ari den museoa. ●









